

EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

1

Toda la carga del caserío

De las casas y caseríos de todo el País desaparecieron los hombres jóvenes. Toda la producción y explotación de caseríos y otras actividades quedó en manos sólo de las mujeres. Además, cómo no, de toda la carga familiar...

Baserriaren zama emakumeak

Lehenengo karlistaldian, Zumalakarregik bere gudarostea boluntarioz osatu zuen eta boluntario horiek gure baserrietatik irten ziren. Baserriko lanaren zati bat bere gain zuten gizasemeak ziren.

Hasiera batean pentsatu bide zen gerra denbora laburreko kontua izango zela eta gure baserrietako gizaseme asko eta asko karlisten lerroetara bildu zen, gure lurraldean bertan egin behar zen borroka zelakoan.

Horrenbestez, baserriko emakumeentzat gelditu zen oso-osorik –eta gizaseme zaharrentzat, halakorik baldin bazen– baserria ustiatu eta aurrera eramateko lan gaitza, baserriko familiaren gorabehera guztiez arduratu behar izateaz gain...

© Garbiñe Ubeda



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

2

Pánico a los ataques y robos

El pánico ante los frecuentes ataques y robos en los caseríos era una constante, al que las mujeres debían hacer frente.

Eraso eta lapurreten izua

Baserrien eta etheen kargu geldituriko emakumeek noiznahi etxeko atarian azal zitekeen erasotzaileari aurre egin behar zioten eta hori arrisku ikaragarria zen. Gipuzkoan eta Euskal Herrian barrena noiznahi gertatzen ziren erasoak eta kontra-erasoak, soldaduek aurrera eta atzera egin beharra ia etengabea zen lurraldean barrena.

Horrek zeukaten guztia galtzea ekar ziezaiekeen arren, izuak bultzatuta, hainbat emakumek eta senidek hutsik utzi zituen baserriak eta ezkutalekuren batera jo zuen.

© Garbiñe Ubeda



Elikagai eta hornigaiien zailtasuna

EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

3

Carencia de alimentos

La familia que fuera considerada del bando contrario podía tener auténticas dificultades para abastecerse de alimentos y productos de primera necesidad.

Baserri edo etxe batekoei inguruan nagusi ez zenaren marka jartzen baldin bazieten –esate baterako, karlisten lurraldean liberalen aldeko izatea–, arazo larriak eduki zitzakeen familia horrek bere inguruan, erabateko hutsunea somatzeraino. Arazo hau bereziki larria gertatzen zen elikagaien eta hornigaiien gabezia zenean, janaritarako lehengaiak falta zirenean. Halakoetan, egiazko gosetea gauza ziurra zen eta maiz etxetik kanpora mugitu beharra....

Hori bestelako neurririk hartzen ez baldin bazen...



Erbesteratzeen zigorra

EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

4

Destierro

Era habitual desterrar a las familias
consideradas del bando contrario.

Ohiko gertatzen zen agintariak beste alderdikotzat zituzten herritarrak erbesteratzea; “beste alderdikotzat” jotzeko nahikoa zen gizasemeren bat alderdi hartara jo izana borrokara...

Donostian, esate baterako, karlistekin boluntario joandako mutilen familiak hiritik kanpo botatzea ohiko gertatu zen eta Andoainen, esate baterako, joera liberala zuen hainbatek ere herritik kanporako bidea hartu zuen.



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

5

Guerrilleras

En más de una ocasión las mujeres de vieron obligadas a combatir en ambos bandos. Incluso en el bando liberal hubo en Santurtzi o Lemoa compañías de combatientes femeninas.

© Garbiñe Ubeda

Gerrilari

Karlisten artean ez dugu soldadu gisa ibilitako emakumeen berri; horrek ez du esan nahi, ordea, borroka egin behar izan ez zutenik, goian adierazi bezala, euren etxe ondasunak defendatzen edo baita, Andoainen gertatu zen bezala, karlisten lerroen atzean laguntza ematen.

Liberalen artean, hirigune handiagoetan, izan zen baina emakumeek antolaturiko gerra-indarrik. Bizkaian, esate baterako, Santurtzin eta Lemoan emakumeen konpainia bana antolatu zen liberalen ondoan borroka egiteko.



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

6

Enfermeras

El cuidado y atención de heridos y enfermos era encomendado a las mujeres, bien fuera en hospitales y ambulatorios de campaña, bien en los caseríos inmediatos a las acciones militares.

© Garbiñe Ubeda

Erizain

Erizaintza izan zen, ziurrenik, emakume gehien lotu zuen eginkizuna, emakumeentzako gordetzen baitziren eri eta zaurituen zaintza lanak, erietxean izan, kanpalekuetan, baita gudarosteen joaneto-
rrietan baserri edo elizetan antolatzen ziren boti-
kinetan.

Lan eta ardura gutxi ez lehendik ere baserriko lanak eta familia gobernatzen eta maiz zaurituriko sol-
daduak hartu behar izaten ziren etxeko sutondoan, haiei mantenua eman eta zaindu, arrisku berriak bere gain hartuz (gaisoak, mendekuak, tropa-me-
dikuen aginduak...).



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

7

Trabajos marginales

La miseria de la guerra obligó a muchas mujeres a desarrollar actividades subordinadas a los soldados: desde la colada y remiendo de ropas y pertrechos, hasta la custodia y transporte de rapiña, servicios sexuales o las actividades de espionaje.

Zokolanetan

Gerrak emakumearentzat bazterreko eginkizun eta lan ugari ekartzen zuen, betiere gizonezkoen mendeko eginkizunetan. Baziren emaztea beraiekin zekarten soldaduak, ofizialak batik bat, liberalen artean eta baita atzerritik etorritakoen artean ere.

Baina baziren ere gudaroste karlista edo liberala egonkortzen zen lekuetan biltzen ziren emakumeak, goseak eta beharrak hartaratuak, mota guztietako lan edo zerbitzuak eskaintzen zituztenak: arropa garbitzeko lixiba egitea, soldaduen harrapakinak gorde eta garraiatzea, sexu zerbitzuak, zelatari ibiltzea...



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

8

Espías

El espionaje en el frente y retaguardia fue una actividad para la que se requirió el servicio de las mujeres. El mito de la espía Atanaxi en la batalla de Andoain nos relata la equivocación con la que informó al general O'Donell de la llegada de once batallones de Navarra, en lugar del Batallón nº 11 de Navarra.

Zelatari gudalerroan

Emakume asko erabili zuten zelatari eta salatari lanetarako lehenengo karlistaldian, hala karlistek nola liberalek ere. Inor zelataritzat jo eta harra-patuz gero zigorra ia berehalakoa zen: heriotza. Jardun horren arrazoia zen emakumeen bitartez errazago gertatzen zela arerioarengana iristea.

Andoaingo guduan ere badago ATANAXI izeneko emakume salatariaren inguruko kondaira, aski ezaguna: Atanaxik okerreko informazioa eman zion O'Donell gudalburu liberalari, Nafarroatik karlisten 11 batailoi zetoze la esan zion, benetan zetorrena Nafarroako 11. batailoia zenean.

Eugenio Aviraneta zelatari liberalak ere bere ekin-tzetan emakumezkoak erabiltzen zituen karlisten-gandik informazioa lortzeko eta, baita ere, karlisten aldera liberalen mugimendu eta ekintzei buruzko okerreko berriak bidaltzeko.



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

9

Secuestros y asesinatos

El secuestro y amenaza de muerte de las mujeres fue otra de las constantes en el conflicto, por ambas partes. Al sitiar una villa se recurría a esta estrategia para rendir a los defensores. En más de una ocasión la amenaza se consumaba.

Bahiketa eta hilketa presiobide

Emakumearen beste patuetakoa izan zen bahitu gisa erabili izana bere aldekoen ekintzak baldintzatzeko. Adibiderik ospetsuenetakoa, Cabrera jeneral karlistaren amarena izan zen: atxilotu eta fusilatzeko mehatxu egin zuten semea presionatzeko. Hark mehatxuari bizkarra eman eta, ondorioz, ama fusilatu egin zuten.

Herri eta gotorlekuetan egindako setioetan ere, bertan ziren soldaduekin emazte eta familiak ego-kitzen zirenean, behin baino gehiagotan izan ziren bahituak eta soldaduak estutzeko erabiliak eta, zenbaitetan, hilak.

© Garbiñe Ubeda



EMAKUMEA GERRAREN LABIRINTOAN

10

Bortxakeria eta laidoa: sasikumeen drama


Bortxakeria eta indarkeria emakumearekin noiz-nahi eta nonahi erabili zen lehenengo karlistaldian, gerra guztietan bezalaxe. Sexu bortxakeriak irismen bereziki larria hartzen zuen eta soldaduegandik itxaron zitekeen berehalakoena eta zitalena huraxe zen.

Hori, ordea, ezkutatu nahi izaten zen gehienetan, emakumea markaturik geratzen baitzen betirako eta hori zama izugarria zen emakumea gutxiensten zuen gizarte batean.

Arrazoi horregatik ez da zuzeneko lekukotasunik aurkitzen. Zoritxarrez, lekukoak maiz erreka eta bide bazterretan edo Probintziaren kaxetan azaltzen ziren haur jaioberriak ziren, sasia utzitakoak ama erditu berriek ezin zutelako –edo ez zutelako nahi– haien ardura beregain hartu.

El estigma de la violencia: el drama de las criaturas abandonadas

La primera guerra carlista fue, como todas, de una gran violencia para las mujeres, violencia que tuvo su máxima expresión en la agresión sexual sistemática. No obstante, el estigma que provocaba dicha violencia y el rechazo de la mujer que lo padecía hace muy difícil su constatación, aun cuando el marcado incremento de recién nacidas abandonadas en toda la Provincia dé alguna pista al respecto.



© Garbiñe Ubeda